



Lehiaren
Euskal Agintaritza
Autoridad Vasca
de la Competencia

EBAZPENA (Esp.: 10/2013 ANIMALIEN BILKETA)

Laburpena

TOCOsoko bilkura

María Pilar Canedo Arrillaga andrea, lehendakaria

Natividad Goñi Urriza andrea, kontseilukidea

Rafael Iturriaga Nieva jauna, kontseilukidea

Idazkaria: Alfonso Gómez Fernández jauna

1. Lehiaren Euskal Kontseiluak, arestian aipatutakoak bilduta, 10/2013 ANIMALIEN BILKETA espedienteari buruzko ebazpen hau eman du, 2015eko uztailaren 16ko bilkuran.

I. Aurrekariak

2. Lehiaren Euskal Agintaritzari jakinarazi zitzaionez, bazen susmoa Txorierriko Mankomunitatea osatzen duten udaletan animaliak biltzeko, zaintzeko eta edukitzeko zerbitzua ematen duten eta eman duten enpresa pribatuak ados jarrita zeudela animaliarik ez hiltzeko haiek bizirik mantentzeko legezko betebeharririk ez dagoen egunetik aurrera, animalien zaintza *sine die* luzatzen etekin ekonomikoa ateratzearren.

2014ko otsailaren 14an, Lehiaren Euskal Agintaritzako Ikerketa Zuzendaritzak ebazpen bat eman zuen. Haren bidez, gaiari buruzko isilpeko informazioa biltzeko agindu zuen, eta Bizkaiko Lurralde Historiko osora hedatu zuen azterketa.

3. 2014ko otsailaren 25ean, gai hauei buruzko informazioa eskatu zitzaion EUDEL EUSKADIKO UDALEN ELKARTEARI:

- Bizkaiko udal eta udal-mankomunitateetan animaliak biltzeko, zaintzeko eta edukitzeko zerbitzua emateko modua.
- 2009tik gaur arte Bizkaiko toki-administrazioekin zerbitzu hori emateko kontratua egin duten enpresen zerrenda.
- Bizkaiko toki-administrazioek eta enpresek zerbitzu hori emateko sinatutako kontratuen kopiak.



- Kontratazio-agirien ereduak edo EUDELEk Bizkaiko udal eta udal-mankomunitateetan animaliak biltzeko, zaintzeko eta edukitzeko zerbitzuaren kontratazioa uniforme egiteko prestatutako dokumentazioa.
- 2009tik gaur arte Bizkaiko kaleetan bildutako animalien kopurua eta enpresek akabatutako animaliena, urtez urte, udalez udal edo mankomunitatez mankomunitate eta enpresaz enpresa.

2014ko martxoaren 13an iritsi zen informazioa.

4. 2014ko martxoaren 18an, informazioa eskatu zitzaizen erakunde hauei:

URIBE BUTROEKO ZERBITZU-MANKOMUNITATEA, URIBE KOSTAKO ZERBITZU-MANKOMUNITATEA, ARRATIAKO UDALEN MANKOMUNITATEA, LEA-ARTIBAI AMANKOMUNAZGOA, ENKARTERRIKO MANKOMUNITATEA, LEA IBARRA UDAL-MANKOMUNAZGOA, TXORIERRIKO ZERBITZUEN MANKOMUNITATEA, DURANGOKO MERINALDEAREN AMANKOMUNAZGOA, GETXOKO UDALA, BARAKALDOKO UDALA eta BILBOKO UDALA.

Zehazki, informazio hau eskatu zitzaizen:

- Udal edo udal-mankomunitate bakoitzean animaliak biltzeko, zaintzeko eta edukitzeko zerbitzua emateko modua.
- 2009tik gaur arte udal edo mankomunitate bakoitzarekin zerbitzu hori emateko kontratua egin duten enpresen zerrenda.
- Udal edo mankomunitate bakoitzak eta enpresek zerbitzu hori emateko sinatutako kontratuen kopiak.
- 2009tik gaur arte udal edo mankomunitate bakoitzeko kaleetan bildutako animalien kopurua eta enpresek akabatutako animaliena, urtez urte, udalez udal edo mankomunitatez mankomunitate eta enpresaz enpresa.

2014ko martxoaren 24tik uztailaren 14ra bitartean iritsi zen informazioa.

5. 2014ko apirilaren 24an, ZAUNK SA enpresak gaiari buruzko informazioa bidali zion Lehiaren Euskal Agintaritzari, bere borondatez.

6. 2014ko urriaren 27an, Gune Zoologikoen Erregistroan izena emandako enpresei buruzko informazioa eskatu zitzaion BIZKAIKO FORU ALDUNDIKO Nekazaritza Sailari, haren betebeharren artean baitago animaliak biltzea.

2014ko azaroaren 12an iritsi zen informazioa.

II. Animaliak biltzeko eta edukitzeko zerbitzua Bizkaian

7. Animaliak babesteko 6/1993 Legearen arabera, "bazter utzitako animaliatzat joko da jatorriaren eta jabearen identifikaziorik ez daramana eta bakarrik



dabilena, bai eta identifikaziorik eraman arren, jabeak edo arduradunak galdu egin dela jakinarazi ez duena ere"¹.

"Udalen eta foru-aldundietako sail aginpidedunen egitekoa izango da bazter utzitako animaliak eta, identifikazioa eraman arren, edukitzailearen laguntzarik gabe noraezean dabiltzanak jasotzea, berreskuratu, jabe berri bati eman edo hil ditzaten arte. Horretarako, udalek langileak eta toki egokiak izan beharko dituzte edo, eduki ezean, administrazioarekin elkarlanean ari diren animaliak babesteko eta aldezteko elkarteekin, udalen gainetik dauden erakundeekin edo foru-aldundietako organo aginpidedunekin hitzarmenak egin beharko dituzte zerbitzu horiek izateko" (Animaliak babesteko urriaren 29ko 6/1993 Legea, 15. artikulua). Legearen dekretu bidezko garapenaren arabera, berriz, toki-erakundeek "gune zoologikoen baimen, erregistro eta kontrolari buruzko Dekretuaren arabera baimendutako txakurren nukleo zoologikoekin" ere egin ditzakete animaliak biltzeko zerbitzua emateko hitzarmenak². Alde horretatik, "gune zoologikoa da animaliak edukitzeko, mantentzeko, hazteko eta/edo saltzeko dauden zentro, establezimendu eta instalazio guztiak, berdin dio hori gunearen jarduera nagusia den eta merkataritzako helburuak dituen edo ez"³.

"Identifikaziorik gabeko animalia bat jasota edukitzeko epea hogeita hamar egunekoa izango da gutxienez. Epe hori igaro ondoren inork erreklamatzeko ez badu, animalia eskuratu, jabe berri bati eman edo hil egin ahal izango da" (Animaliak babesteko urriaren 29ko 6/1993 Legea, 16. artikulua).

"Animaliak identifikazioa baldin badarama, jabeari animalia jasota dagoela sinistarazte-indarrez jakinaraziko zaio eta 7 laneguneko epea emango zaio berreskuratzeko, eraman aurretik animaliak biltegian sortarazitako gastuak ordaindu beharko dituela ere jakinaraziko zaio. Epe hori igaro ondoren jabeak berreskuratzen ez badu, aurreko atalean aipatu dena egingo da animaliarekin.

Dagokion araubidean adierazten diren osasun-arrazoiak direnean izan ezik, edukitzaile pribatu bat aurkitzeko arrazoizkoa den guztia egin eta ezer lortu ez eta animalia-biltegietan denbora luzeagoz edukitzea ezinezkoa denean bakarrik erabakiko da herri-administrazioen esku dauden animaliak hiltzea" (Animaliak babesteko urriaren 29ko 6/1993 Legea, 17. artikulua).

¹ Animaliak babesteko urriaren 29ko 6/1993 Legea, 14. artikulua (EHAA, 220, 1993ko azaroaren 15ekoa).

² Euskal Autonomia Erkidegoan txakurrak edukitzeari buruzko ekainaren 1eko 101/2004 Dekretua, 8. artikulua (EHAA, 130, 2004ko uztailaren 9koa).

³ Gune zoologikoei buruzko apirilaren 11ko 81/2006 Dekretua, 2.1. artikulua (EHAA, 78, 2006ko apirilaren 25ekoa).



8. Araudiaren arabera, gune zoologikoek erregistro batean izena eman behar dute. Bizkaian, enpresa hauek eman dute izena ⁴ (759. eta 760. folioak):

ENPRESA PRIBATUAK		
Erregistro-zk.	Izena	Udalerrria
NZ-1-BI	SEC SL	SOPELA
NZ-11-BI	Txakur-Bai	MEÑAKA
NZ-30-BI	Europa Canina SL	BARAKALDO
NZ-175-BI	Kantarriketas	ABADIÑO
NZ-204-BI	Hotel Canino Aiertza SL	LOIU
NZ-229-BI	Zaunk	IURRETA
NZ-248-BI	Hotel Canino Euskalmushing	LEMOA
UDAL-ZENTROAK		
Erregistro-zk.	Izena	Udalerrria
NZ-257-BI	Txakurren Udal Zentroa	48015 BILBAO
NZ-258-BI	Udal Txakurtegia	48891 KARRANTZA

Iturria: Bizkaiko Foru Aldundiko Nekazaritza Saila.

Enpresak elkarrekin adostuta dauden aztertzeko, beharrezkoa da Txorierriko Mankomunitatea osatzen duten udaletako egoera eta inguruko udaletakoa konparatzea. Bilboko Udala azterketatik kanpo utziko dugu, bere instalazio eta langile propioak baititu; alegia, bere baliabide propioak erabiliz ematen baitu animaliak biltzeko zerbitzua. Karrantzako Udala, aldiz, aztertu egingo dugu, 2009tik 2012ra bitartean Enkarterriko Mankomunitatearen bidez eman baitzuen zerbitzua.

9. Txorierriko Mankomunitateak enpresa bat kontratatzen du animaliak biltzeko zerbitzua emateko, urtero.

Zerbitzu-kontratu txikiak egiten ditu harekin: haiek tramitatzeko, nahikoa da gastua onartzea eta dagokion faktura espedienteari eranstea (461. eta 462. folioak).

Aldia	Enpresa
2009	Zaunk SL
2010	Zaunk SL
2011	Zaunk SL (urtarrila-maiatza)SEC Servicios y Equipos Caninos SL(maiatza-abendua)
2012	SEC Servicios y Equipos Caninos

⁴ Gune zoologikoei buruzko apirilaren 11ko 81/2006 Dekretua, 8. artikulua.



	SL, Txakur Bai eta Euskalmushing SC
2013	Euskalmushing SC
2014ko urtarrilaren 1a - 2014ko otsailaren 19a	Euskalmushing SC
2014ko otsailaren 20a - 2014ko abenduaren 31	Txorierri ABEE (animalia eta landareak babesteko Iror elkartea eta Europa Canina SLE) ⁵ .

10. Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitateak prozedura ireki bidez lizitatu zuen animaliak biltzeko eta edukitzeko zerbitzua, eta ZAUNK SA enpresari esleitu zion, 2009ko urriaren 29an. Bi urte irauten zuen kontratuak, eta beste bi urtez luzatzeko aukera ematen zuen.

2011ra arte, esleipendunak normal eman zuen zerbitzua. Urte hartan, ordea, jakinarazi zuen ez zuela kontratua luzatzeko interesik, zerbitzua hitzartutako baldintzetan emateak galera ekonomikoak zekarzkiolako (396. folioa).

2012ko otsailaren amaiera aldean, Mankomunitateak esleitutako gehieneko zenbatekoa agortu zen, eta zerbitzua emateari utzi zion Mankomunitateak: udal bakoitzaren esku utzi zuen zerbitzua.

11. Lea-Artibai Amankomunazgoak ZAUNK SL enpresarekin kontratu txikiak sinatuta eman du zerbitzua 2009tik gaur arte (464-481. folioak).

12. 2009tik 2012ra bitartean, **Enkarterriko** Mankomunitateak ZAUNK SL enpresarekin kontratu txikiak sinatuta eman du zerbitzua, Karrantzan izan ezik.

2012an, berriz, zerbitzua emateari utzi zion Mankomunitateak, eta udal bakoitzaren esku utzi zuen zerbitzua (735-754. folioak).

13. Getxoko Udalak lizitazio publikoen bidez kontratatzen du zerbitzua, eta, lizitazioen artean, kontratu txikien bidez (650-692. eta 713-734. folioak).

Epea	Enpresa	Kontratazio mota
2005eko ekaina - 2009ko uztailaren 8a	SEC Servicios y Equipos Caninos SL	Lizitazioa
2009ko uztailaren 9a - 2009ko abuztuaren 7a	SEC Servicios y Equipos Caninos SL	Kontratu txikia
2009ko abuztuaren 8a - 2012ko abuztuaren 7a	Zaunk SL	Lizitazioa
2012ko abuztuaren 8a - 2012ko urriaren 31	Zaunk SL	Kontratu txikia
2012ko azaroaren 1a - gaur	SEC Servicios y Equipos Caninos SL	Lizitazioa

⁵ Animaliak babesteko elkarteekin elkarlanean aritu ohi dira enpresak, animaliak adoptatuak izan daitezzen. Iror elkartea ABEEko kide da, baina ez da gune zoologiko bat.



14. Barakaldoko Udalak lizitazio publikoen eta kontratu txikien bidez kontratatzen du zerbitzua (189-368. folioak).

Epea	Enpresa	Kontratazio mota
2009ko irailaren 1a - 2009ko abuztuaren 30a	EUROCAN EUROPA CANINA SL	Kontratu txikia
2009ko irailaren 1a - 2013ko abuztuaren 31	EUROCAN EUROPA CANINA SL	Lizitazioa
2013ko irailaren 1a - 2015eko abuztuaren 31	EUROCAN EUROPA CANINA SL	Lizitazioa

15. Hona bazter utzitako animaliak biltzeko eta edukitzeko zerbitzuak 2009tik 2013ra bitartean, **Bizkaiko** udal eta mankomunitateetan:

Bazter utzitako animaliak biltzeko zerbitzua Bizkaian															
	2009			2010			2011			2012			2013 ⁶		
	B	H	Z	B	H	Z	B	H	Z	B	H	Z	B	H	Z
Lea-Artibai	55	14	d.e.	52	4	d.e.	58	8	d.e.	58	7	d.e.	50	5	d.e.
Uribe Kosta	50	3	15	280	23	23	254	19	24	58	11	14			
Txorierrri	102	23	22	103	17	10	112	7	21	63	4	16	105	-	7
Barakaldo	153	33	1	117	40	-	131	17	8	113	19	5	133	33	3
Getxo	297	55	27	269	25	34	226	12	21	254	22	42	194	2	6
Guztira	1.424	136	65	1.591	121	67	1.627	83	74	1.431	85	77	1.220	65	16

B: Bildutako animaliak / H: Hildako animaliak / Z: Zentroan dauden animaliak / d.e.: daturik ez

III. Zuzenbideko oinarriak

16. Hauxe dio Lehia Defendatzeko Legearen 1. artikulua:

Debekatuta dago taldeko akordio, erabaki edo gomendio oro, edo hitzartutako praktika edo nahita paraleloa den jarduera oro, horien helburua ondorengoa bada edo izan badaiteke: merkatu nazional osoan edo zati batean lehia eragotzi, murriztu edo faltsutzea.

Animaliak biltzeko, zaintzeko eta edukitzeko zerbitzua emateko kontratatutako enpresek lehiaren kontrako jardunbiderik izan duten aztertu beharra dago; alegia, animalien zaintza *sine die* luzatetik etekin ekonomikoa ateratzearen, animaliak bizirik mantentzeko legezko betebeharrak ez dagoen egunetik aurrera animaliarik ez hiltzeko adostu diren.

17. Aipatutako araudiarekin bat, **udalena** da animaliak biltzeko ardura eta, "edukitzaile pribatu bat aurkitzeko arrazoizkoa den guztia egin eta ezer lortzen ez" dutenean, animaliak hiltzea erabakitzekoa.

⁶ Ez dago Uribe Kostako daturik, animaliak biltzeko zerbitzua emateari utzi baitzion Mankomunitateak.



Honela dio Administrazioarekiko Auzien Bilboko 3. Epaitegiaren 140/2013 epaiak:

“Ondorioztatzen denez, Udalak du [animaliak] zaintzeko betebeharra, ezinezkoa zaion arte, eta kontratistak ez du betebeharririk kontratuak xedatzen duenetik kanpo. Alde horretatik, kontratuak inola ere ezin du xedatu kontratistak animaliak mugagabeki mantentzea; kontratista kontratua betetzen ari den itxurapean, Udalak ezin ditu kontratistaren esku utzi dagokion eskumena izateagatik dagozkion ardurak”⁷.

18. Egindako ikerketen esparruan ez da aurkitu udal edo mankomunitateek zerbitzua ematen duten enpresei animalia-aren bat hiltzeko eskatu eta enpresek agindua bete ez duten adibiderik.

Alderantziz, ebazpen honetako informazioak (15. paragrafoko taulak) adierazten duenez, animaliak hil egin dira Bizkaiko udal eta mankomunitateetan.

Zerbitzua eman duten enpresak (ZAUNK SL, SEC SERVICIOS Y EQUIPOS CANINOS SL, EUROPA CANINA SL eta EUSKALMUSHING SC) arduratu dira animaliak hiltzeaz, eta, hortaz, baztertu egin dezakegu, animalien zaintza *sine die* luzatzeak etekin ekonomikoa ateratzearren, enpresek lehiaren kontrako hitzarmenik egin dutenik.

Bildutako animalien, hildakoen eta enpresen instalazioetan daudenen proportziotik ez dago ondorioztatzerik enpresak animaliak ez hiltzeko ados jarri direnik.

Aitzitik, espedienteko datuen arabera, enpresak elkarren kontra lehiatu dira, eskaintzak aurkeztuta bazter utzitako animaliak biltzeko zerbitzua kontratatzeko toki-administrazioek antolatutako lizitazioetan.

19. Isilpeko informazioa tramitatu bitartean ikusi denez, toki-administrazioek eta enpresek sinatutako kontratu askok ez dute xedatzen bildutako animaliek enpresen instalazioetan gelditu behar dutenik 30 eguneko legezko gutxieneko epea igarotakoan. Animaliak edukitzeko, zaintzeko eta mantentzeko gastuak zehaztugabeak dira, eta eztabaida ugari piztu dira haien ordainketari buruz.

Kontratuek ez dutenez gero zehazten nor erabaki behar duen noiz hil animaliak, eta Administrazioak ez duenez gero ezer egiten, animaliak biltzeko zerbitzuaren kostua esponentzialki hazi da toki-administrazioetan.

20. Honela dio Lehia Defendatzeko Legearen 49.3. artikulua:

⁷ Administrazioarekiko Auzien Bilboko 3. Epaitegiaren urriaren 21eko 140/2013 epaia, 206/2013 errekurtsoa.



Lehiaren Batzorde Nazionalaren Kontseiluak, Ikerketen Zuzendaritzak proposatuta, lege honen 1., 2. eta 3. artikuluetan debekatutako jokaerak ustez izateagatik hasi beharreko prozedurak ez hastea erabakitzeko aukera izango du, eta ordura arteko jarduerak artxibatzeke aukera, legea urratu izanaren zantzurik ez dagoela irizten baldin badio.

Lehiaren Euskal Agintaritzari buruzko Legearen 10. artikulua dioenez, "Lehiaren Euskal Kontseiluaren eginkizuna da Administrazioak bere kabuz hasitako jarduerak edo salaketak artxibatzeko ebaztea, hala egin behar denean, zehapen-espeditante bihurtu baino lehen"⁸.

IV. Ebazpena

BAKARRA- Ikerketa Zuzendaritzaren ebazpen-proposamena onartzea eta, horrenbestez, Bizkaiko Lurralde Historikoko udal eta mankomunitateetan bazter utzitako animaliak biltzeko, zaintzeko eta edukitzeko zerbitzua ematen duten enpresen kontrako zehapen-espeditanterik ez abiaraztea.

Jakinaraz biezaie ebazpen hau Ikerketa Zuzendaritzari eta Merkatuen eta Lehiaren Espainiako Batzordeari. Ebazpen honek amaitutzat ematen du administrazio-bidea. Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar daiteke ebazpen honen kontra, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, ebazpena jakinarazi eta bi hilabeteetan.

⁸ Lehiaren Euskal Agintaritzari buruzko otsailaren 2ko 1/2012 Legea (EHAA, 29, 2012ko otsailaren 29koa)